UDALEKU IREKIEN ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI LABURTUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Klausula-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hauxe da: Antzuolako 2021 urteko udalekuak kudeatzea eta antolatzea espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorrita; dokumentazio horrek kontratu-balioa du.

Udal honek konpromiso irmoa du genero arteko berdintasunarekin. Ondorioz, udalekuak genero arteko berdintasuna ardatz moduan hartuta gauzatuko dira.
Era berean, zerbitzuaren erdigunean jarriko dira: batetik, ingurumena eta naturaren zaintzaren balioak; eta, bestetik, Antzuolako ondarea eta kultura.

2021eko udaleku irekiak uztailaren 5etik 15era, biak barne, egingo dira 09:30etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, jai egunetan izan ezik.

Zerbitzua zuzenduko da 2021 urtean zehar 5 urteko gelatik 6. Maila bitarteko haurrei.

CPV kodea:

55243000-5 (Haurrentzako udaleku-zerbitzuak).

92000000-1 (Aisialdirako, jolaserako eta kulturarako zerbitzuak).

Zerbitzua ez da sortatan zatituko, justifikazio memorian jasotako arrazoiak direla eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 99.3 artikuluari jarraituz (9/2017 Legea, azaroaren 8koa)**.**

2. KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Preskripzio teknikoen agirian jasota dago zer arrazoirengatik egingo duen administrazio honek agiri honen xede den kontratua.

3. EGIKARITZEKO EPEA

Kontratuaren iraupena izango da: 2021eko ekainaren 7tik uztailaren 30era.

Kontratuaren iraupenaren parte izango dira zerbitzuaren antolaketarako egin beharreko aurre-lanak eta prestaketarako erabilitako denbora (bilerak, deiak, e-mailak, balorazioak, likidazioa...)

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 24.091 euro da, BEZa aparte.

Antzuolan udalekuetan parte hartu lezaketen ume kopuru maximoa 200ekoa dela aurreikusten da. Kopuru hori kontuan hartuta, udalekuetako prezioa 24.091 eurokoa gehi % 10eko BEZa izango da.

Prezio hori kalkulatzeko erabili den irizpidea:

- Hezitzaileen ordainsaria: Antzuolako Udaleko ordainsarien taulako 7. maila.
- Koordinatzailearen ordainsaria: Antzuolako Udaleko ordainsarien taulako 9. maila.

Pertsonala ordaintzeko kopurua: 22.346 €

Parte hartzen duen ume kopurua aldatzen bada (ume gehiago edo gutxiago), prezioa kalkulatzeko hiruko erregela aplikatuko da.

Prezio horretan sartuta daude zerbitzua aurrera eramateko sortzen diren gastu guztiak (beharrezkoa den pertsonalaren soldatak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, administrazio kostuak, langileen formazioa eta dietak, inbentariagarria ez den materiala…, hau da, udalak bere gain plegu honetan espresuki hartzen ez dituen gastu guztiak).

Prezio hori beherantz hobetu ahal izango da.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaindu ahal izateko, aurreikusita dago finantzazioa Antzuolako Udalaren aurtengo aurrekontuaren kontura, BEEL Udalekuak 1 0200.227.99.326.00 2021 zenbakidun partidan.

6. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

Dagokion faktura aurkeztu eta onesten denean ordainduko da kontratuaren prezioa, honela:

Faktura bidez egingo dira ordainketak, arlo konomiko eta finantzarioko araudiak xedatzen duena errespetatuz, eta beti ere udal teknikari arduradunaren adostasunarekin.

Lanaren anolatketa kontuan izanik, honela bideratuko dira ordainketak:

- 1. faktura: % 25 kontratuaren hasieran.
- 2. faktura: % 25 uztailaren 9an.
- 3. faktura: % 50 zerbitzua amaitu eta likidazio-memoriarekin batera.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan, ez dira berrikusi behar prezioak, SPKLren 103.1 artikuluari jarraituz.

8. BERMEAK

Kontratuaren adjudikaziodunak behin betiko bermea jarri behar du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Bermearen zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren % 5 izango da, BEZa aparte.

Berme hori jartzeko epea 17. klausulan aipatutako eskakizunean adierazitakoa izango da. SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea. Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke bermea jarri dela egiaztatzeko. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, administrazioak ez du adjudikazioa beraren alde emango.

Bermea itzultzeko edo ezeztatzeko, osorik edo hala badagokio partez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bermealdia amaitu eta adjudikaziodunak kontratuan ezarritako betebehar guztiak bete ondoren.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki laburtuaren bidez esleituko da, SPKLko 159. artikuluan ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta bera garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, honako prozesu honi jarraituz:

1) **Hartzailearen esku jartzea**.
2) **Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukiak eskuratzeko bidea**.

Epeak egun honetatik hasiko dira zenbatzen: jakinarazpena egiten den egunetik (jakinaraztearen xede den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaile-profilean), edo jakinarazpena jasotzen den egunetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzaile-profilean).

Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte eta ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere. Kaudimena 17.5 klausulan ezarritako bitartekoen bidez egiaztatuko eta ebaluatuko da.
Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezgaitasun horiek.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

13. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Honako hauek dira kontratua adjudikatzeko oinarri izango diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta haien haztapena:

- Automatikoko zenbatestekoa: % 75 (eskaintza ekonomikoa)
- Balio-iritzi baten araberakoa: % 25 (aurkezturiko proiektua)

Eskaintza ekonomikoa: % 75

75 puntu emango zaizkio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa formula honetatik aterako da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza; hau da:

LP = ET/LE x 75
LP: lizitatzailearen puntuazioa
ET: eskaintzarik txikiena
LE: lizitatzailearen eskaintza

Eskaintza ekonomikoak baloratzeko prezioak BEZik gabe hartuko dira kontuan.

Aurkezturiko proiektua: % 25

- Lan metodologia eta antolakuntza: baliabide materialak eta pertsonalak, begiraleen parte hartzea egitarauaren diseinuan, eguneroko jardueren prestakuntza eta antolaketa, etabar…(gehienez 6,25 puntu).
- Programazioa bera; eta noiz eta nola gauzatuko den. (gehienez 6,25 puntu).
- Koordinaziorako planteamendua: begiraleen-koordinatzailearen edota taldearen arteko koordinazioa (gehienez 3,125 puntu).
- Eguneroko ebaluaziorako tresnak, eta ebaluazio orokorrerako ildoak (gehienez 3,125 puntu).
- Udalekuak hasi eta irauten duten bitartean familiekin komunikazioa nola gauzatuko den (gehienez 1,875 puntu).
- Begiraleei eskainiko zaien formakuntzaren zehaztapena. (gehienez 1,25 puntu).

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Honako kide hauek osatuko dute kontratazio-mahaia:

- **Mahaiburua:** Bernardo Rafael Kortabarria Olabarria (Alkatea)
- **Kideak**:
  Mikel Gotzon Larrea Zabalo (Idazkari Kontuhartzaile akzidentala)
  Ramon Arginzoniz Altuna (Brigadako langilea)
  Mikel Bargiela Iparragirre (Zinegotzia)
- **Mahaiko idazkaria:** Markel Azkargorta Cid (Hirigintzako administrari laguntzailea)
- Ordezkoak:

    - Ordezko mahaiburua: Garazi Larrea Zumelaga (Zinegotzia)
    - Ordezko mahaikideak: Maria Jose Garitano Badiola (Administrari laguntzailea)
    - Ordezko idazkaria: Mikel Gotzon Larrea Zabalo (Idazkari Kontuhartzaile akzidentala)

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA KLAUSULA-AGIRIAK ESKURATZEKO BIDEA

Lizitazio hau Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman baitago.

Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira plataforma horren bidez, 15 egun naturaleko epean, argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera, epearen azken eguneko 14:00ak baino lehen.

Honako helbide honen bidez sartu ahal izango da Udalaren kontratatzaile-profilean: https://antzuola.eus/tramiteak-eta-agiriak/kontratugilearen-profila

Toki horretan bertan eskuratu ahal izango dira klausula-agiriak eta dokumentazio osagarria.

Lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino 8 egun lehenago egin badira eskariak.

SPKLren 136.2 eta 136.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo klausula-agiriari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokitzat jotzen den adina.

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; dena den, aldaerak onartu ahal izango dira. Halaber, ezin izango du beste aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik.

Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek bi gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta; klausula honetan adierazitako edukia izan beharko du bakoitzak.

«A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA» eta «AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK»

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

a) Posta elektronikoko helbide gaitua.

Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan ezarritako eskakizunak, bereziki 12. eta 17.5 klausuletakoak. Kontratazio-agiri europar bakarraren (KAEB) inprimakiaren araberakoa izango da adierazpena; klausula-agiri honen I. eranskinean dauden argibideei jarraituz bete daiteke.

c) Proposamen ekonomikoa, II. eranskineko ereduaren araberakoa.

Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.

«B» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «BALIO-IRITZIEN BIDEZKO BALIOESPEN-IRIZPIDEAK»

Gutun-azal horretan, agiri honen 13. klausulan adierazitako balio-iritzien araberako irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak jasoko dira.

17. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA; ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jardun hauek egingo dira:

1. «A» GUTUN-AZALA IREKI

Mahaiak «A» gutun-azala irekiko du elektronikoki, eta hartan sartutako dokumentazioa kalifikatuko du.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, mahaiak, zuzentzeko moduko akatsak aurkitzen baditu dokumentuetan, ukitutako lizitatzaileei jakinaraziko die hori, eta hiru egun naturaleko epea emango die akatsok zuzentzeko.

Halaber, udalaren kontratatzaile-profilean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira lizitatzaileei jakinarazitako zuzentze-eskaerak.

2. «B» GUTUN-AZALA IREKI

«B» gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, zeina balio-iritzi baten araberako irizpideei buruzkoa baita, kontratatzaile-profilean gutxienez 48 ordu lehenago argitaratuko den leku, egun eta ordu batean irekiko da. Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak sei egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, zeinak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen baitu.

3. ESKAINTZAK SAILKATU

Irizpide guztiak balioetsi ondoren, aurkeztutako proposamenak puntuazio handienetik txikienera sailkatuko ditu kontratazio-mahaiak, eta, egin beharreko jarduketak egin ondoren, kontratua adjudikatzeko proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde; ez du eskubiderik eskuratuko administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatu arte.

SPKLren 149. artikuluan xedatutakoaren arabera, nabarmenki baxuegitzat jotzeko moduko eskaintzaren bat identifikatuz gero, eskaintza nabarmenki baxuegitzat jotzeko, aldez aurretik, entzun egin behar zaio eskaintza aurkeztu

duen lizitatzaileari (edo lizitatzaileei), eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa eman beharko du.

Kasu horretan, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, administrazioaren nahierara betetzeko gaitasuna dutela irizten zaien proposamenetatik ekonomikoki onuragarrien denari adjudikatzea erabakiko du kontratazio-organoak.

Kontratazio-organoak uste badu eskaintza ezin dela bete balio nabarmenki baxuegiak izateagatik, sailkapenetik baztertuko du, eta eskaintzarik onenari adjudikatzea erabakiko du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraituz.

Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, eta aktetan jaso, nahitaez idatzi beharko baitira aktak.

4. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN

Aurreko jardunak egin ostean, kontratazio-zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari ekintza hauek egiteko edo dokumentu hauek aurkezteko, zazpi egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo entitate baten izenean jardunez gero, notario-ahalordea, zeina udalak askietsiko baitu.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldaketa-eskritura beharko da, kasuan kasukoa, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera inskribatuta egotea eska daitekeenean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna frogatzeko honako hauetako bat aurkeztu behar da: dagokion erregistro ofizialean inskribatutako eraketa-eskritura edo -dokumentua, estatutuen agiria edo sortze-egintzaren agiria, zeinean zehaztuta egon behar baita zer arauk erregulatzen duten beraren jarduera.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko herritarrak, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, egoitza daukaten estatuko legerian ezarritakoaren arabera, edo erantzukizunpeko adierazpen baten edo egiaztagiri baten bidez, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenei jarraituz.

Atzerriko gainerako enpresaburuek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomazia Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena.

c) Egiaztatu behar du alta emanda dagoela jarduera ekonomikoen gaineko zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta-agiria aurkeztuz, urteko ekitaldikoa bada, edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Betiere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

d) Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak, SPKLren 87. eta 90. artikuluetan ezarritako bitartekoen bidez.

Aipatutako bitartekoei dagokienez, enpresek, kontratu honetarako, gutxieneko kaudimen-eskakizun hauek bete beharko dituzte:

<u>Kaudimen tekniko-profesionala</u> egiaztatzeko dokumentuak:

1) Azken hiru urteetan eskainitako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztu beharko da; zerrenda honetan zenbatekoa, datak eta jasotzailea, publikoa zein pribatua, baita hauen ziurtagiriak ere aurkeztuko dira. Ziurtagiri hauek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90 artikuluan jasotako ezaugarriak izango dituzte.

2) Genero arteko berdintasun arloan formazioaren bat izatea koodinatzaile izango denak. Pertsona horrek ezinbestean parte hartuko du kontratuaren exekuzioan.

3) Kaudimena egiaztatzeaz gain, lizitatzaileek beren eskaintzetan zehaztutako behar adinako baliabide pertsonal eta materialak atxiki beharko dizkiote kontratua egikaritzeari. Zerbitzuan lan egingo duten begiraleek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- DBH, Lanbide Hezkuntza 1 edo pareko tituluaren jabe izatea.
- Aisialdirako begirale titulua izatea (behar beste jende ez badago begirale tituluarekin, udalarekin adostuko da tituludunen portzentaia).
- Koordinatzaileak, gutxienez, begirale titulua izatea eta aisialdi talderen batean gutxienez urte bateko esperientzia izatea koordinatzaile moduan.
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagi negatiboa egiaztatu behar dute.
- Hizkuntza gaitasunari dagokionez, 21. Puntuan zehaztutakoa.
- Mutilen eta nesken artean parekidetasuna bermatu beharko da ahal den neurrian.
- Programatutakoa ezintasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten haurrei egokitu behar zaie. Beharrezko kasuetan, haientzako begirale espezifikoa jarri beharko da.

Behar adinakotzat jotzen dira horri dagokionez, preskipzio teknikoetan zehaztutakoak.

Horrez gain, kontratua egikaritzeko ardura izango duten langileen izenak eta lan-kualifikazioa ere adierazi beharko dituzte proposamenek, gutxienez koordinatzailearen datuak eta kurrikuluma aurkeztu beharko dira. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da adjudikaziodunak ezin izango dituela pertsona horiek aldatu administrazio honek aldez aurretik horretarako baimena eman gabe.

Baldintza eta baliabide pertsonal horiek kontratuari atxikitzea funtsezko kontratu-betebehartzat joko da; horrenbestez, SPKLren 76.2 artikuluan

xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izan da 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako. Hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek klausula honi dagokion erregistro ofizialen baten egiaztagiria edo Europar Batasuneko ziurtagiria aurkeztu.

Kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatzeko dokumentuak:

Gutxienez 1.000.000 euroko kapitala duen erantzukizun zibileko poliza bat kontratatu izanaren egiaztagiria eta, horrekin batera, asegurua berritzeko edo luzatzeko konpromisoa agertu beharko da, kontratua gauzatzen den bitartean estaldurari eutsi egingo zaiola bermatzeko, baldintza teknikoen pleguan aipatutakoari jarraituz. Aseguru horrek hirugarrenei (Antzuolako udala barne) egindako kalteak estaliko ditu.

e) Zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak bete dituela egiaztatu beharko du, edo baimena eman kontratazio-organoari informazio hori zuzenean jasotzeko.

f) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

Eskatutako agiriak adierazitako epe horretan aurkezten ez badira, lizitatzaileak eskaintza kendu duela joko da. Hori gertatzen bada, puntuazioaren arabera antolatutako eskaintzen zerrenda hartu eta haren ondorengo lizitatzaileari eskatuko zaio lehen aipatutako agiri horiek aurkez ditzala.

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, hiru egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko; lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

18. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZATZEA

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena egiten duen lizitatzaileari adjudikazioa ematea ebatziko du, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluak xedatutakoari jarraituz.

Lizitatzaile guztiei emango zaie adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Adjudikazio-jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezin izango baita 15 egun baino gehiagokoa izan, adjudikaziodunak administrazio honetara jo behar du kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatzeko.

19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

20. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA

Kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, agiri honetan jasotako klausulei eta, hala badagokio, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoei jarraituz. Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu.

Kontratistari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotz dakiokeen egintza edo ez-egite baten ondorioz arriskuan jartzen bada kontratua egokiro egikaritzea, administrazioak agindu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratuaren egikaritze egokia lortzeko edo berrezartzeko.

Kontratua beteko da zurrun eta zorrotz jarraituta baldintza pleguak dioenari, eta, edozein kasutan ere, udal ordezkariek, kontratistari, agiri horiek diotena burutzeko edo interpretatzeko orduan idatziz emandako jarraibideei.
Kontratistak izango du egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna; eta baita kontratua betetzerakoan egiten dituen hutsegite eta akatsek, erabiltzen dituen metodo ezegokiek edo ateratzen dituen konklusio okerrek Administrazioarentzat edo beste norbaitentzat izan ditzaketen ondorioen erantzukizuna ere. Kontratistak berari egotz dakizkiokeen ekintzengatik hirugarrenei egiten zaizkien kalteen kalte-ordainak ordainduko ditu.
Kontratistak bete egin beharko ditu kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko une bakoitzean indarrean dauden arau guztiak.
Kontratu-hartzailea derrigortuta dago kontratua burutzeko epea betetzera; berandutzak ez du eskatzen Udalak aurretik ohartarazi beharrik.
Kontratista, prestazioa emateko, derrigortuta dago kontratua zuzen betetzeko beharrezkoak diren bitarteko laguntzaile guztiak eta ekipoa jartzera, kontratuan bertan hitzartutako epeetan.
Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresaburuari dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebehar hauek hartuko ditu bere gain: ordainsariak

negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea –hala egitea dagokionean–; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordainketa barne–; eta baita enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko lan-kontratutik sortzen diren gainontzeko eskubide eta obligazio guztiak ere.

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du –bere plantillan integratua- eta, beste batzuen artean, obligazio hauek izango ditu:

- Kontratuarekin zerikusia duten gauza guztietarako kontratistaren pertsonalak Administrazioarekin egin behar duen edozein komunikazio jaso eta emateko orduan, beti izango da koordinatzailearen, teknikariaren edo horretarako izendatu den solaskidearen bidez.
- Enpresaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, batik bat pertsonala lanlekura joan behar denean edo oporrak hartzen dituenean; kontratatutako zerbitzuaren eskaintza ez nahasarazteko.
- Kontratua egitera atxiki diren enplegatuek kontratuari atxikita segitzen ez dutenean, Administrazioari horren berri eman behar zaio, bereziki haiek zeuzkaten lan-bitartekoak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko.

Enpresa kontratisten langileek edo, kudeaketa-mandatu baten ondoren, bere zerbitzuak udaleko lantokietan edo haren erakunde publikoetan eskaintzen dituenek ezingo dute zerbitzu hauetarako sarbiderik izan:

a) Prestakuntza-ikastaroak –lan arriskuen prebentzio-alorrean derrigorrez bete beharrekoak izan ezik–.

b) Erakundearen posta elektronikoa. Posta elektronikoko konturen bat izendatu behar bazaie, posta elektronikoaren helbidean garbi utzi behar da kanpoko pertsonala dela.

Hitzartutakoa burutzeari dagokionez, kontratuak duen termino horietako edozein ez ezagutzeak, kontratuaren zati diren dokumentu erantsiak ez ezagutzeak edo Administrazioak onartu dituen mota guztietako Baldintzak edo arauak, jarraibideak edo aginduak ez ezagutzeak, ez du salbuesten kontratista kontratua betetzeko duen bere obligazio horretatik.

Kontratu-hartzailearen arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

Kontratua Udalaren zuzendaritzaren, ikuskapenaren eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratu-hartzaileari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebeharra dira; horrenbestez, SPKLren 201 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

21. KONTRATISTAREN LAN-ARLOKO BETEBEHARRAK

Lan-arloko betebeharrak

Kontratu honen xede diren zerbitzuetan kontratatuko dituen langileei dagokienez, kontratista behartua dago lanaren, gizarte-segurantzaren zein laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzera, bai eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren araberako lan-baldintzak ere. Administrazioa salbuetsita geratuko da ez-betetze horren erantzukizunetik.

Kontratistak, kontratuaren xede diren zerbitzuak ematearen arloan segurtasunaren eta osasunaren erantzulea den heinean, arau juridiko eta tekniko aplikagarriak beteko ditu.

Antzuolako Udalak eskubidea izango du kontratua indarrean dagoen bitartean prebentzioaren arloan egokitzat jotzen duen dokumentazioa eskatzeko.

Aipaturiko lan-arloko betebeharrak SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera,egikaritze-baldintza berezi izaera dute; era berean, kontratuaren betebehar funtsezkoak izango dira 211. artikuluaren f) letran adierazitako ondorioetarako.

Hizkuntza irizpideak

- Hizkuntza gaitasuna

Euskara lanerako, harremanetarako eta komunikaziorako ezinbesteko tresna izango da. Ondorioz, euskara maila oso ona izango da udalekuetako betebeharra behar bezala betetzeko.

Antzuolako udalak aukera izango du elkarrizketa moduan edo egoki irizten dion frogaren arabera, hezitzaileen euskara maila neurtzeko eta baloratzeko.

Ohartuz gero, hezitzaileren batek ez duela eskatzen den hizkuntza gaitasunik, Antzuolako Udalak eskumena izango du pertsona hori egun batetik bestera ordezkatzeko eskatzeko.

Ordezkatu ezean, arau ez-betetze oso larritzat joko da.

- Hizkuntzazko arau eta irizpideak.

Kontratazio honen bidez bideratuko diren jardueretan eta herritarrekiko komunikazioetan euskarazko harremanak sustatuko dira, Udaleko planean herritarrekiko harremanetarako finkatutako irizpideen arabera, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuaz.

Euskara Zerbitzuak emango dizkiote enpresa adjudikazio-hartzaileari irizpideon gaineko azalpen zehatzak.

Enpresa adjudikazio-hartzailearen eta Udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira.

Adierazitako hizkuntza irizpideak hauek kontratuaren betebehar funtsezkoak izango dira SPKLren 211. artikuluaren f) letran adierazitako ondorioetarako.

22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI EGITEN ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistak izango du kontratua egikaritzeko egin beharko diren eragiketek ekarritako kalte eta galeren erantzukizuna.

23. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan esanbidez adierazitako baldintzetakoren bat betetzen bada, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, baldin eta horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

24. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarritik datozen eginbeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari eta horren garapen-araudiari buruz.

Kontratistak udalaren jarraibideen arabera tratatuko ditu kontratua dela-eta eskuratzen dituen datu pertsonal automatizatuak, eta ez ditu aplikatuko ez erabiliko bertan agertzen den xedea ez den beste baterako, eta ez dizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, ezta kontserbatzeko ere.

Kontratuaren prestazioa amaitu ondoren, tratatutako datu pertsonalak udalari eman beharko zaizkio, baita tratatzeko moduko datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumentu ere.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak, kontratuaren baldintzak urratuz, beste xede baterako bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu datuak, orduan tratamenduaren erantzuletzat ere hartuko da, eta egin izan ditzakeen arau-hausteez erantzungo du.

Kontratu honen bidez ezagutu ditzaketen datuei buruz, enpresa kontratista eta bere langileak espresuki behartuta daude datu guztiak zeharo isilpean mantentzera (datu pertsonalak barne).

Halaber, Copyright-ari buruz, jabego intelektualari buruz eta sailkatutako edo hedapen mugatuko dokumentazioari buruz indarrean dauden arauak betetzera ere behartuta dago enpresa kontratista, betiere kontratuaren betebeharrengatik erabili behar duen dokumentazioarekiko.

25. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA

Kontratuaren xedea den prestazioa bukatu eta gehienez ere 30 eguneko epean, lanaren harrera-egintza formal eta positiboa egingo da; zerbitzuko teknikari arduradunak egingo du.

Gainera, 3 hilabeteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme-epe horretan kontratu-hartzailea izango da erantzulea, egiten diren lan edo zerbitzuetan akats edo ikusiezinezko akatsak agertzen badira.

Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan kontratu-hartzailearen erantzukizuna amaitutzat joko da.

26. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK

A. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).

Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

B. Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren % 10en baliokidea den zigorra ezartzea.

Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

C. Prestazioa oker gauzatzea

Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

<u>Beste ez-betetze batzuk (arinak, larriak eta oso larriak) eta penalizazioak</u>

a) Ez-betetze arinak
Arautegi orokorrak eta Baldintza Pleguak ezarritako betebeharrak ez betetzea, eta ez-betetze larria edo oso larria ez denean.
b) Ez-betetze larriak
- Udalak edota Baldintza Pleguan zerbitzua emateko moduari buruz agindutakoa hiru aldiz ez betetzea.
- Osasun arauak ez betetzea, edo publikoarentzat egoera osasungaitz, arriskutsu edota kaltegarriak izan daitezkeenak gerta ez daitezen Alkatetzak emandako arauak ez betetzea.
- Zerbitzuan Udalak ezarritako xehetasun-aldaketak ez betetzea, betiere adjudikazio-hartzailearentzat gasturik suposatzen ez dutenean.
- Ezarritako ordutegia ez betetzea.
- Antzemandako akatsak zuzentzeko Udalak emandako aginduak ez betetzea.
- Ez-betetze arin bat baino gehiago egitea 15 eguneko epearen barruan.
c) Ez-betetze oso larriak
- Zerbitzua, nabari-nabari, akatsekin eta irregulartasunez ematea, ezarritako baldintzak bete gabe.
- Udalaren baimenik gabe zerbitzu osoa edo partzialki zeditzea, errentan jartzea edo eskualdatzea.

- Zerbitzua ematen duten langileekiko betebehar laboralak eta Gizarte Segurantzakoak ez betetzea.
- Dokumentazio faltsua aurkeztea.
- Ez-betetze larri bat baino gehiago egitea.
- Plegu hauetan horrelakotzat jotzen diren jarduera edota jarrera.

d) Penalizazioak

Puntu honetako a), b) eta c) ataletan araututako ez-betetzeek honako penalizazio hauek izan ditzakete:

- Ez-betetze arinak: 540 eurotik 721 eurora.
- Ez-betetze larriak: 722 eurotik 1.112 eurora.
- Ez-betetze oso larriak: 1.113 eurotik 2.000 eurora edota kontratua etetea fidantza galduz.

Erabakia berehala betearaztekoa izango da; eta diru-kopuru horiek kobratzeko, kontratistari egin behar zaizkion ordainketetatik —ordainketa osotik zein zatikakoetatik— dagozkion kenketak egingo zaizkio, eta aipatutako ziurtagiri horietatik ezin bazaio kenketarik egin, ezarrita duen bermetik kenduko zaio.

Edozein kasutan ere, penalizazioak ezarri aurretik enpresa adjudikazio-hartzaileari entzunaldia emango zaio.

Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan daude ezarrita.

28. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratu honetan ez da lagapenik onartzen.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratu honetan ez da azpikontrataziorik onartzen.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

31. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, hala badagokio, kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako edozein errekurtso.

.....(e)n, 20.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

I. ERANSKINA. KONTRATUAK EGITEKO ESKAKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN-EREDUA

GEHITU KONTRATAZIO-AGIRI EUROPAR BAKARRA; HURA BETETZEKO HONAKO ARGIBIDE HAUEI JARRAITU BEHAR ZAIE

Erantzukizunpeko adierazpenari dagokion eranskina kontratazio-agiri europar bakarraren eredu normalizatuaren bidez betetzeko, honako urrats hauei jarraitu beharko zaie:

1.- Deskargatu DEUC.xml fitxategia zure ekipora; Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman dago eskuragarri, lizitazio honen eranskinen fitxan.

2.- Ireki esteka hau: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd

3.- Aukeratu «*gaztelania*» hizkuntza.

4.- Hautatu «*eragile ekonomikoa naiz*» aukera.

5.- Hautatu «*inportatu kontratazio-agiri europar bakar bat*» aukera.

6.- Igo 1. urratsean deskargatutako DEUC.xml fitxategia.

7.- Hautatu herrialdea eta sakatu *«hurrengoa».*

8.- Bete kontratazio-agiri europar bakarraren kasuan kasuko atalak.

9.- Inprimatu eta sinatu dokumentua.

10.- Behar bezala bete eta sinatu ondoren, dokumentu hori lizitazioaren gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da, deialdia arautzen duten agirietan xedatutakoari jarraituz, eta horretan ezarritako epean.

11.- Kontratuak zenbait sorta baditu, adierazpen bat bete beharko da lizitatzen den sorta bakoitzeko.

12.- Lizitazioan aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartzen denean, dokumentu bat bete beharko da enpresa-elkartea osatzen duen enpresa bakoitzeko.

13.- Baldin eta kontratua egiteko behar adinako kaudimena egiaztatzeko lizitatzaileak beste enpresaren baten kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horiekiko duen izaera juridikoa edozein dela ere, dokumentu bana bete beharko dute enpresa lizitatzaileak eta baliabideak atxikitzen dituen enpresak.

II. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea .....
NAN-zenbakia: .....
Telefonoa: .....
Helbide elektronikoa: .....

Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala, neure izenean, edo honako honen ordezkari:
Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea .....
NAN-zenbakia edo IFK-zenbakia (pertsona fisikoa edo juridikoa den): .....;
Telefonoa: .....

Jakin dut .....k prozedura abiarazi duela
..... kontratatzeko.

ADIERAZTEN DUT

1) Konpromisoa hartzen dut hura egikaritzeko .....(e)ko epean eta prezio honetan: ..... euro, gehi % .....(e)ko BEZari dagozkion ..... euro. Prezio horretan sartuta daude kontzeptu guztiak: zergak, gastuak, edozein zerga esparrutako tasak eta arielak, eta kontratistaren industria-etekina, besteak beste.

2) Ezagutzen ditut preskripzio teknikoen agiria, administrazio-klausula partikularren agiria eta kontratu hau eraenduko duten gainerako dokumentu guztiak. Denak esanbidez onartu, eta ontzat hartzen ditut beren osotasunean.

3) Ordezkatzen dudan enpresak betetzen ditu irekitzeko, ezartzeko eta funtzionatzen hasteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta obligazio guztiak.

.....(e)n, 20.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura